


Mikel Aramendi (Itsasondo; 1955). Xabier Barandiaran (Ataun; 1969). Gipuzkoako goierritarrak. LKIk kidea lehena eta EAJkoa bigarrena. Guk analista politiko gisara bildu ditugu ordea. Udal eta foru hauteskundeek bake eta normalizazioaren prozesuan izan dezaketen eragina hartu dugu hizpide. Elkarrizketa ETAk su-etenaren bukaera iragarri baino lehen egin da, hala ere, beren irizpideek funtsa gorde dutelakoan gaude.

**MIKEL ASURMENDI**

Argazkiak: Dani Blanco



Xabier Barandiaran

Mikel Aramendi

## Prozesua bururaino eramatea beste aukerarik ez dago

Aztertu ditzagun azken hauteskundeak bake eta normalizazioaren ildoan. Nola baloratu dituzue emaitzak EAEn?

**MIKEL ARAMENDI.** EAEn eta Gipuzkoan bereziki, datu azpimarragarriena abstentzioa da: abstentzioak emaitza guztiak baldintzatu ditu. Ez dut boto aldaketarik ikusi hala ere, eremu bakoitzean abstentzioa proportzionala izan da. Baina kezagarria da udal hauteskundeetan izan delako. Honek normaltasunetik urrun gaudela erakusten du.

**XABIER BARANDIARAN.** Bat nator Mikelekin, baina abstentzioaren faktorearen arrazoiak ezberdinak izan daitezkeela uste dut. Badira giltza diren beste faktore batzuk ere bai: bat, ezker abertzalearen emaitzak, aukera izan duen tokietan emaitza onak lortu ditu. Bi: PSE-EEk, botoak galdu arren, egoerari eutsi dio. Hiru: EAJ, oro har, lehen alderdia da EAEn. Egia da boto asko abstentziora joan zaiola, Gipuzkoan

batez ere. EAEn hala ere zentralitatea, politikoki, indartsu dago.

**Normalizazioa lortzeko alderdien arteko transbertsalitate lana aipatu ohi da. Emaitzak horretarako egokiak al dira?**

**M. ARAMENDI.** Nik ez nituzke txartzat joko, areago Nafarroako emaitzak, lagungarriak dira. Arlo instituzionaletik begiratuta ere onak dira. PSEk eutsi dio, PPren beherakadaren aldean. Duela 8 urte egoera alderantzizkoa zen, eta PP baino eragile baikorragoa da PSOE normalizazioa lortzeko. Alderdi abertzaleen egoera ez da argitu ordea, ez dago nagusitasun garbirik, areago nahastuta geratu da. Hori txarra al da prozesurako? Ez dakit!

**X. BARANDIARAN.** Abertzaletasunaren nagusigoa garbia da.

**M. ARAMENDI.** Bizkaian bai, Gipuzkoan parekotasun batera itzuli gara.

**X. BARANDIARAN.** Hori egia da. Gipuzkoan EAJ eta ezker abertzalearen arte-

ko oreka dago, baina Jaurlaritza osatzen duen hirukoaren ikuspuntutik begiraturik nagusitasun bat dago EAEn. Abstentzioaren arrazoiak aipatu nahi ditut: bat, herritarrak politikarekiko jarrera berria hartzen ari direla, eta bestea, oso inportantea, abertzale-tasunak bizi duen une delikatua.

**Otegi prozesua blokeatua zegoela esan du eta orain hautsita. [ETAk su-etenaren amaiera iragarri baino lehen esana].**

**M. ARAMENDI.** Agendaren denbora kontuan hartuta, ziur aski prozesua hautsita zegoen urte hasieraz geroztik, aldiz, prozesua ideia filosofikoa bezala ulerturik ez dago hautsita. Barajaskoa bezalako atentatuak izango dira beharbada, prozesua luzatuko da, baina gaur egiten ez dena bihar egin beharko da, ez dago beste alternatibarik

**X. BARANDIARAN.** Ados nago. Izan ere, bake prozesua euskal gizartean giza

eskubideen eta erabakitze eskubi-dearen printzipioak ezarri zirenean hasi zen nagusitzen. Printzipio horien kanpo kokatzen diren eragile politikoek ez dute Euskal Herrian lekurik. Prozesuak une hobekak edota txarra-koak biziko ditu, ETAK nola-halako ibilbideren bat egin lezake, baina borroka armatuaren zikloa, politikoki, bukatu da, prozesua bururaino eramatea beste aukerarik ez dago.

**Ziklo gogorra etor omen liteke artean.**

**M. ARAMENDI.** Zeren gainean? ETAK eragin dezake politikoki, adibidez, Euskal Yaren eraikuntzan?

**X. BARANDIARAN.** Ez. Hasteko euskal gizartearen gehiengoa ETAREN aurka dagoelako eta Euskal Yaren alde. Gizarteak ETARI, fenomeno politiko bezala, arnas politikoak kendu dio. ETAK ez dauka politikoki jokatzeko margenik. Atentatuak egin ditzake, baldintza lezake alderdien jarduna, baina ezin du Estatua kolokan jarri.

**Alderdien jardunean eragin dezake ETAK. EAJn bi sektoreen arteko gero eta eztabaida biziagoa antzematen da.**

**X. BARANDIARAN.** Alderdi politiko guztietan eztabaida handia dago, EAJn ere bai, bistan da. Baina ondo bideratzen bada, onuragarria izango da.

**Alderdiak erabaki inportanteak hartzeko unean daude eta EAJ bereziki.**

**X. BARANDIARAN.** Bai. Baina EAJk bere ponentziak ditu eta horiek markatzen dute bidea. Horren agergerri da lehendakariak markatutako ibilbidea, ibilbide garbia eta Legebiltzarrean gehiengoaren sostengua jaso zuena.

**Baina EAJko sektore guztiek indar berarekin urratu nahi al dute bide hori?**

**X. BARANDIARAN.** Uneon alderdia Ibarretxe lehendakariarekin dago. Ibarretxeren ibilbidea, ibilbide orria da, eta alderdian egon daitezkeen eztabaidek ibilbidea indartu behar dute.

**M. ARAMENDI.** Nik arazo bat ikusten diot EAJri: bere bi hipotesi nagusiak duda-mudazkoak direla. Bat Espainia barruan eroso samar bizi daitekeen hipotesia da. Hipotesi hau gero eta problematikoagoa ikusten dut Estatuko politika gero eta muturtuagoa dagoelako, eta honek ez du ETAREN biolentziarekin erabateko loturarik, Espainiako gobernuak elementu zentrifugoak lantzeko duten jarrerarekin baizik. Nazio indentitatearen arazoa da. Beste sektorearen hipotesia Europako herrien ideia da, herri hau eroso samar aurki daitekeen hipotesia. Hipotesi hau asmo onekoa da, baina ez da errealista, Europa ez doalako aurrera. Estatuak jaun eta jabe dira eta Estatua ez duen herriak jai du.

**Orduan, herri honek ez du irtenbiderik.**

**X. BARANDIARAN.** Mikelek planteatzen duen moduan ez. Baina planteamen-dua ez da guztiz zehatza. Uneon Euskal Herriari irtenbiderik ematen ez dioten bi bide daude. Bat, Espainiako

Konstituzioaren bidea, azken 30 urteotan ikusi bezala. Bestea, borroka armatuaren bidea da. Agortu da. Uneon, bidea –eta bidea ez da EAJren zeregin soila– erdigunean dagoen ubide politikoari forma politikoak emateko gaitasunean datza. Erabakitzeko eskubideari forma politikoak emateko gauza bagina, forma politiko horrek nolabaiteko hitzarmena ekar lezake Espainiarekin, berdintasunean oinarritutako hitzarmena. Europan lekua izatea hurrengo fase batean etorriko litzateke. Uneon, herri bezala iraubidea ziurtatu nahi badugu, aipatutako bi printzipioei egitura politikoak eman beharko genieke. Nik hortik ikusten dut irtenbidea, ez beste inondik.

**M. ARAMENDI.** Horretarako erreferenteak aztertzen hasi beharko genuke lehenik. Oraindik 1990eko hamarkadako Europako ekialdera begira bizi gara, estatu berri independente samarrak sortu ziren orduan. Horrek giro bat sortu zuen gurean, baina Madrilen beldur politiko ikaragarria ere bai. Aznarrek Euskal Herriaren balkanizazioaren aitzakian egin zuen bere politika. Ekialdeko prozesua amaitu zen hala edo nola eta orain gure erreferenteak askoz hurbilago daude. Gu Atlantikoko herrialdea gara, Irlandako prozesua hurbil dugu. Eskozian, esaterako, prozesu parlamentario bat garatzen ari da, biolentziarik gabekoa, baina egiari zor, Eskoziak guk baino estatu malguagoa du aurrean. Espainiako Estatuak ez du Erresuma Batuak bezala jokatzeko. Guk Ibarretxe Plana edo antzekoa proposatu dezakegu, Erre-

“Guk Ibarretxe Plana  
proposatu dezakegu,  
Erresuma Batuan inor ez  
litzateke asaldatu,  
Espainian aldiz ikusi dugu”  
Mikel Aramendi

**07**  
UDA ZURE  
NEURRIA  
www.ueu.org  
UEU  
Udako Euskal Unibertsitatea

**35.**  
Udako  
Ikastaroak  
UEU  
BAIONA UZTAILAREN 9tik 13ra  
IRUÑEA UZTAILAREN 2tik 13ra

suma Batuan inor ez litzateke asaldatuko, Espainian aldiz ikusi dugu. Kataluniako Estatuta nola bukatu zen ere ikusi dugu. Atlantikoko eta Ekialdeko erreferenteak ditugu, baina gurean praktikan Turkiako arauak aplikatzen dira.

**Alderdien esparrura itzuliz: mapa politikoa egituratzeko garaia heldu da eta alderdi bakoitzak bere tokia nahi du.**

**X. BARANDIARAN.** Bai. Nik errespetatzen dut alderdi bakoitzak bere bidea urratzea, baina gure herrian ez gaude alderdi ikuspegi batetik aritzeko unean, herri ikuspegia lantzeko unean baizik. Eta herri honi irtenbidea aurkitu nahi badiogu, oinarrizko puntuetan ados jarri beharko dugu. Aipatutako bi printzipioak dira unean, oinarrizko puntuetara eramango gaituzten bakarrak.

**Zuk Xabier, printzipio horiek oinarri ikusten duzu irtenbidea: EAJz harago joanez, hirukoaren bidez, Aralar barne. Baina, Euskal Ya, errauste plantak edo Pasaiaiko portu berriaren proiektu estrategikoak tarte direlarik, posible al da?**

**X. BARANDIARAN.** EAJ, EA, EB eta Aralarren artean ezberdintasunak direla esaten da, baina Jaurlaritzan hirukoa dago eta AHT egiteko akordioa dago. Alderdi bakoitzak bere proiektu estrategiakok izanda ere, alderdiek ahalmena dute herri proiektuan bat egiteko. EB eta Aralarrekin ezberdintasunak daude, baina gaitasuna dago akordioak lortzeko. EAJ eta EBren artean akordioak daude: euskaran, kulturari, etxebizitzan... Proiektu estrategikoetan diferentziak izateak ez du galarazten gainerakoetan adostasunak lortzea. Eztabaida faltsua da batzuetan.

**M. ARAMENDI.** Faltsua izanda ere, eztabaidak politika errealean eragiten du. Azpiegituren atala bat besterik ez da, baina beste askoren menpekoa. Alderdiek normalizazio politikoa azpiegituren aurretik dagoela esango dute, baina praktikan ez da horrela beti.

**Nafarroa aztergai azkenik: 30 urte eta gero EA Erekiko lurralde berezia bilakatu. Estatu afera da Nafarroa.**

**X. BARANDIARAN.** Abertzaleok urtetan akats asko egin dugu, eta espainolismoak erreazioz beste hainbeste edo gehiago. Hauteskundeetan UPNreiko kontrako erreazioa gailendu da.

“ETAk atentatuak egin ditzake, baldintza lezake alderdien jarduna, baina ezin du Estatu kolokan jarri”

XABIER BARANDIARAN

**M. ARAMENDI.** Nafarroa eskualdeka ulertu behar da, EAE lurraldeka ulertu behar den bezala. Nafarroan hiru eskualde nagusi daude: Mendialdea, Iruñerria eta Erribera.



Barandiaran eta Aramendirekin elkarrizketa ETArekin su-etenaren amaiera ezagutu aurretik egin genuen, Donostiako Bulevardean.

Soziologia oso bereziak dira. Duela 30 urte errealtate horiek ez ziren kontuan hartu, ezta errealtateek izan zezaketen garapen soziologikoa, demografikoa, urbanistikoa... Arazo sakonak ditu, eta epe laburrean ez dira argituko. Nafarrek oreka horietan bizi beharko dute, Nafarroan ez da nagusitasuna lortuko duen korronte politikoa ikusten. **X. BARANDIARAN.** Hauteskundeek UPNren gehiengo osoaren politika agortu dela erakutsi digute. Nafarroako sektore zabalek UPNren

espainolismo garrantz horri –PPren tzat eredu dena– ezezkoa eman diote, eta bereziki Na-Bai bozkatu dutenek.

**Zer aukera du Na-Baik?**

**X. BARANDIARAN.** Aukera bakoitzak bere arriskuak ditu, eta arrisku bakoitzak bere aukerak. Na-Bairi boterearen kudeaketa egiteko aukera heldu zaio eta hazkunde edo kolapso fase batean sar daiteke. Bere barne kontraesanak azkartu daitezke, baina boteretik kanpoan gertatzea ere arrisksuegia izan daiteke, boto eman dioten askok UPN boteretik kendu nahi duelako. Saiatu behar duela uste dut.

**PSNk zein margen politiko dauka?**

**X. BARANDIARAN.** Ez dakit PSNk zein erabaki hartuko duen, baina Nafarroari on egingo lioke PSNk –Na-Bairekin batera– UPN boteretik kentzea. Erronka oso handia da PSN eta PSO-Erentzat, jakina. Erabakitzen badute aldaketaren prozesua martxan jartzea, Nafarroa datozen hauteskundeetan ardatz izango da, eta PPren presio handia izango dute. Kontua da bere boto emaileek zer nahi duten: Gobernuan sartzea edo oposiziotik bide egitea datozen hauteskundeetan zain. Zaila da jakiten...

**M. ARAMENDI.** Zaila da zer egingo duen jakitea, baina zer egin beharko lukeen garbi daukat –ez naiz nire ikuspegi politikotik ari–, nire ustez boterea hartu behar du.

Aukera pasatzen uzten badu, oso zaila izango da beste aukerarik izatea. Madrillgo interesak eta beharrak alde batera uzteak arriskua hartzea eskatzen du. Bestela, bere boto-emailek agintzeko ahalmena bukatu zaiola pentsa dezakete. PSN oso gaizki ateratu zen Gobernurik [PSNko presidentea ohi Urralburu ustelkeria kasuengatik auzipetua izan zen] eta ez bada azkar samar itzultzen, iraganaren zama gainetik kentzeko gauza ez dela ageriko da, PSN ez dela UPNk egin duena hobetzeko gauza, alegia. ■